

Zientziaren Astea Elhuyar Fundazioan

Garazi Andonegi Beristain
Elhuyar Zientziaren Komunikazioa

Azaroaren 7tik 17ra, Zientziaren eta Teknologiaren Astea izan da Euskal Autonomia Erkidegoan, eta Elhuyar Fundazioak, aste horrekin bat eginez, ekitaldi bat antolatu zuen.

EKITALDI HORRETAN, BI EKIMENEN BERRI EMAN ZEN. Batetik, Elhuyar Fundazioak egindako azterketa baten emaitzak jakinarazi zituzten. Hain justu, joan den uztailako zenbakian eman genuen ikerketa horren berri zabalago. Elhuyar Fundazioak Euskal Autonomia Erkidegoan argitaratzen diren zazpi egunkaritan zientzia- eta teknologia-gaiei zer tratamendu ematen zaien eta zenbat toki eskaintzen zaien ikertu du.

2004ko azaroaren 1etik 2005eko apirilaren 30era, Eusko Jaurlaritzaren laguntzari esker egin zen ikerketa, eta haren emaitzak aurkeztu zituen Leire Latierra zientzialariak ekitaldi horretan. Latierrak berak, sei hilabete horietan, berrien generoa eta zenbateraino zeuden landuta neurtu zituen. Horiek guztiak kontuan izanda, hainbat ondorio atera zituen; horien artean nabarmenezkoak, hauek: guztira 4.489 zientzia-albiste argitaratu dira 7 egunkari horietan, eta egunkarien orrien % 2,5 hartu dute.




Teknoskopia lehiaketako irabazleak Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko, VICOMTech-eko eta Elhuyar-eko ordezkariekin.

lazgo azterketako datuekin alderatuz gero, zientzia-albisteek gorakada nabarmena izan dute; izan ere, egunkarien orrien % 1 soilik hartzen zuten urtebete lehenago, 2003ko azarotik eta 2004ko apirilera bitarteko datuei begirata.

Bestetik, ekitaldi horretan bertan, Teknoskopia asmatzaile gazteentzako lehiaketako sari-banaketa egin zen. Ingurune-adimena gaitzat hartuta, gazteentzat antolatutako ekimena izan da Teknoskopia. Batxilergoko eta Lanbide Heziketako ikasleek, gehienez lau laguneko taldeetan, aurkezpen bat landu behar zuten. Parte-hartzaileek ingurune adimendunen arloan lanean ari diren ikertzaileak zirela imajinatu behar zuten,

eta, egun arlo horretan egiten diren ikerketak kontuan izanda, etorkizuneko asmakuntza baten berri eman behar zuten aurkezpen baten bidez.

Sariketara hainbat ikastetxetako lanak aurkeztu ziren eta irabazlea 'Ikasmahai digitala', El Regato ikastetxeko ikasleen lana, izan zen. Paula Arana, Asier de Diego, Amaia Santamaria eta Jone Miren Miguel izan ziren saridunak. Irabazleek iPod bana (mp3 irakurgailua) jaso zuten, eta, arratsaldean, VICOMTech zentro teknologikoa bisitatzeko aukera izan zuten hango laborategiak eta ingurune-adimeneko proiektuak eza-gutzeko. Fagor Electrodomésticos eta VICOMTech zentro teknologikoez babilak antolatu zen sariketa hori. 

N. GOZUETA



elkar-ekin gaude



www.elkar.com